

Zientzia

zientzia@gara.net

Maidier EIZMENDI | **DONOSTIA**

Arlo eta ikasketa desberdinetako jendea batu da mintzairaren funtzionamendua aztertzea helburu duen zentro berritzailean. Ikerketa lerro desberdinak dituzte eta, besteak beste, mintzaira arazoak, dementzia duten pertsonen hitz egiteko gaitasunaren galera edota elebitasuna ari dira ikertzen egun.

Euskal Herria mintzaira aztertzeko eremu pribilegiatua dela dio, oso desberdinak diren bi hizkuntza mintzatzen direlako. «Beste leku batean egin ezin daitezkeen galderak egiteko aukera ematen digu», ohartarazi du.

Egoitza berriak ekainean zabaldu zituen ateak, baina bere lana aurretik hasia zen. Noiz sortu zen proiektua?

Ofizialki egoitza ekainean inauguratu zen, baina urtarilaz geroztik ari ginen bertan lanean. Basque Center on Cognition Brain and Language zentroa, hala ere, 2008ko abenduan sortu zen. 2009. urtea egoitza eraikitzen, ekipamendua erosten eta negoziatzen eta lehen ikertzaileak, tekniko eta zerbitzu langileak aukeratzen eman genuen.

Zein da zentroaren ikerketa helburua?

Helburu nagusia oraintxe bertan egiten ari garen hori, hau da, mintzairaren bidez ideiak igorri eta hartzea nola gauzatzaren ulertzea da. Jakin nahi dugu nolakoak diren prozesu horiek, nola funtzionatzen duen makinak igorleak ideia batzuetatik abiatu eta soinuak sortzeko; eta hartzailearen kasuan, nola soinu batzuen bidez sortzen dituen ideia zehatzak. Orokorrean hiru eremu nagusi aztertzen ditugula esan daiteke: mintzaira nola geureganatzen dugun, nola ulertzen dugun eta nola sortzen dugun.

Bide horretan, haurrekin egingo dugu lan, baina baita pertsona elebaker eta elebidunekin ere, ulertu nahi baitugu zein modutan jarduten duen makinak hizkuntza bat duenean edota bi dituenean, esaterako. Neurodegenerazioa duten pertsonengan ere arreta jarriko dugu, prozesu hori ulertze aldera. Azken batean, ikerketa gaia, mintzairak zein modutan funtzionatzen duen aztertzea da, eta horretarako biztanle mota desberdinekin egingo dugu lan.

Mintzairaz ari zara behin eta berri, nola definituko zenuke?

Mintzaira pertsona egiten gaituena da, gaitasun kognitibo "humanoena" da. Beste animaliek entzuten dute, hautematen dute, oinez ibiltzen dira... baina



MANUEL CARREIRAS

BCBL ZENTROKO ZUZENDARI ZIENTIFIKOA

Lugon jaioa (1959), Psikologian doktoratu zen eta katedraduna da La Lagunako Unibertsitatean. Neurozientzia eta mintzaira arloan aditua, AEBetan, Suedian eta Erresuma Batuan aritu da ikertzen. Egun, Basque Center on Cognition Brain and Language (BCBL) zentroko zuzendari zientifikoa da.

«Mintzairaren gainean ikertzeko eta jakiteko asko dago oraindik»

guk bakarrik hitz egiten dugu. Bereiztu egin behar dira hitz egitea eta komunikatzea, sarri nahasten diren kontzeptuak baitira. Mintzaira ez da soilik komunikazio sistema bat, errepresentazio sistema ere bada; izan ere, mintzairarik ez bagen, seguruenik errealitatearen irudikapena bestelakoa izango litzateke. Animalien lengoaiak ere hitz egin da, baina beste mota batekoa da. Esaterako, erleen lengoia itxia da, ahalmena dute polena dagoen tokiari buruzko informazioa emateko, baina ez gozoa den edo ez igortzeko. Tximinoekin egindako ikerketetan frogatu da hiztegi oparoa osatzeko gai direla, baina ez dira

gai, esate baterako, esaldi errekurtsiboak ulertzeko.

Mintzaira, genetika eta kultura. Jada gaindituta dagoen eztabaida da.

Bai. Egun jende guztia dago ados mintzairak osagai genetiko handia duela. Horrek ez du esan nahi, ordea, kulturak zeresanik ez duela. Armiamek alboan laguntzen dieten amonak izanda ere, eurekin dakarte armiarma sareak egiteko gaitasuna. Modu berean gure pakete genetikoan dator mintzaira ulertu eta produzitzeko gaitasuna.

Mintzaira ez da, beraz, idazteko edota irakurtzeko gaitasunaren parekoa. Horretarako behar

beharrezkoa da ikastea, baina mintzaira geureganatzeko nahikoa da komunitate linguistikoko batean txertatuta egotea.

Eztabaida hau gaindituta ere, zer ikertu asko duzue, ezta horrela?

Askok. Ezagutzen ditugunak baino ezezagunak ditugun kontuak ugariagoak dira. Askok aurreratu da ikerketa mailan eta, besteak beste, mintzaira nola geureganatzen dugun ezagutzen joan gara. Nolabait guri alderantzizko ingeniartza deitzen dena egitea egokitzen zaigu. Antzeko adibide bat jartzearen, autoak dituen arazoen bidez autoaren funtzionamendua ulertzearen parekoa

da egiten dugun lana. Hitz egiteko arazoetatik abiatuta, erreazio denboretan erreparatuta, mintzairaren funtzionamendua ulertzea da helburua.

Non jarria dago egun arreta ikerketa alor honetan?

Egun, eztabaida gaietako bat mintzairaz jabetzeko modua da. Aztertzen ari da ea berezia den mekanismoa den edota orokorra den. Hau da, ikertzen ari da ea behin hizkuntza bat ikasita, mekanismo hori zapuzten den eta horregatik ez ote dugun lortzen bigarren hizkuntza lehenengoaren moduan ikastea.

Era berean, hizkuntza bat ikasteko adinak zeresana ote

